

## 6. Jardueraren behin betiko bertsioa, 2. Blokea - Ana Isabel García Espina

### ZAINDU ZURE ARRASTOA



**Etapas:** 16-18 urte.



**Zailtasun-maila:** ertaina



2 kide



**Denboralizazioa:** ... saio



**Etiketak:** zibersegurtasuna, arrasto digitala

#### **Jardueraren deskripzioa:**

Ikasleek Interneten partekatzen den informazio pertsonala kontrolatzearen garrantziaz hausnartu eta esperimentatuko dute, irakasleak proposatutako erronka baten bidez.

#### **Helburuak: (3 gehienez)**

1. Ulertzea arrasto digitala zer den eta epe labur eta luzera zer garrantzi duen
2. Ikastea Internet segurtasunez erabiltzen
3. Ikastea mugikorretik “deskonektatzen” beste jarduera batzuetara “konektatzeko”.

#### **Gako kompetentziak eta zeharkako gaiak:**

- Hizkuntza-komunikazioa
- Kompetentzia digitala
- Kompetentzia sozial eta zibikoak
- Komunikabideetarako heziketa
- Kontsumitzailearentzako (eta erabiltzailearentzako) heziketa

#### **Curriculumeko edukiak:**

- Ulermen eta adierazpen idatzia eta ahozkoa
- Aurkezpenak formatu ezberdinetan sortzea



### **Inklusio-alderdiak:**

Ikasle bakoitzaren ezaugarri indibidualak hartuko dira kontuan hitzaldia/lantegia antolatzerakoan, eta guztiek parte hartu ahal izatea ziurtatzen da.

### **Aurreikusitako produktuak / emaitzak:**

Dibulgaziozko posterra, triptikoa, bideoa eta antzekoak.

### **JARDUERAREN GARAPENA**

Jarduerak hainbat zati ditu. “Erronkarako” ezinbestekoa da ikasleen familien oniritzia izatea, eta, beraz, alde zuretik jakinarazi behar zaie.

#### **1. urratsa**

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren “[Un Crac del BMX](https://video.agpd.es/TuDecidesEnInternet/TuControlas/VIDEO_04_UN_CRACK_DE_LA_BMX_V3.mp4)” bideoa erabiliko da:

[https://video.agpd.es/TuDecidesEnInternet/TuControlas/VIDEO\\_04\\_UN\\_CRACK\\_DE\\_LA\\_BMX\\_V3.mp4](https://video.agpd.es/TuDecidesEnInternet/TuControlas/VIDEO_04_UN_CRACK_DE_LA_BMX_V3.mp4)

Bideoa gaztelaniaz badago ere, audiorik gabe ulertzen da, beraz, hizkuntza ez da arazo izango inongo ikaslerentzat.



1.irudia\_bideoaren zatia

Irakasleek bideoa ikusi eta hari buruzko hainbat galdera prestatuko dituzte. Galdera horiekin galdetegi bat osatuko dute. Erabiliko dute <https://www.google.com/intl/es-es/forms/about/> edo office 365aren [forms](https://www.office365.com/forms) <<https://www.microptert.com/es-es/microptert-365/online-surveys-polls-quizzes>>, edo antzekoren bat.

Galderen helburua bideoan ikusten diren puntuei buruzko hausnarketa ahalbidetzea da (mugikorraren gehiegizko erabilera/obsesioa, arrasto digitala, epe laburreko eta luzeko ondorioak...).




2. irudia\_bideoari buruzko galdetegia

## 2. urratsa.-

Irakasle batek orrialde bat sortuko du jardueraren izenarekin, eta TwinBoard bat gehituko du. Bertan, ikasleek bideoa ikusi ondoren erantzun beharreko galdetegia igoko du.



[Orria sortzea](http://etwinning.es/es/nuevo-twinspace-como-crear-una-pagina-de-actividades/) Twinspace-n: < <http://etwinning.es/es/nuevo-twinspace-como-crear-una-pagina-de-actividades/> >



3. irudia\_

TwinSpace-ko orria

## 3. urratsa

Proiektuan parte hartuko duten ikastetxeetako irakasleek ikasleak talde nazionaletan eta nazioartekoetan nola taldekatu adostuko dute. Talde bakoitzeko kideekin taula bat prestatu eta TwinSpace-n horretarako berariaz sortuko duten orrira igoko dute.

Ekipoak	Ikaslea 1. herrialdea	Ikaslea 2. herrialdea
1	Ikaslea_1_1	Ikaslea_2_1
2	Ikaslea_1_2	Ikaslea_2_2
3	Ikaslea_1_3	Ikaslea_2_3



[Orria sortzea](#) TwinSpace-n:

#### 4. urratsa

Ikastaldean eta talde nazionaletan, ikasleek bideoa ikusiko dute eta aurretik sortutako galdetegiari erantzungo diote. Gero, eztabaida txiki bat hasiko dute ikasgelan.

Galdetegiaren emaitzak TwinBoard-ean argitaratuko dira.



4. irudia\_eztabaida

#### 5. urratsa

Ikasleek ez dute oraindik nazioarteko ikaskideak ezagutzeko aukerarik izan, eta **ERRONKARAKO** prestatuko dira.


- Horretarako, bakoitzak TwinMail bat bidaliko dio egokitutako ikaskideari – Beti irakaslea kopian jarrita–, eta bertan “Kaixo, xxx naiz” bakarrik esan dezake, baina **haien profilak sare sozialetan soilik idatzita**.
- Sare sozial horietan ikaskide berriari buruzko informazioa bilatzea da erronka, eta interesgarria iruditzen zaion guztiari buruzko oharrik hartzea, ikaskidea “ezagutzeko”.
- Ikasle bakoitzak aurkezpen xume bat prestatuko du topatutako informazioarekin.

## 6. urratsa

- a) "Sarean ikusten zaitut" izenburua duen foro bat sortuko da, eta nazioarteko talde bakoitzarentzat eztabaida-hari bat irekiko da, kide bakoitzak ikaskideei buruz ikasitakoa partekatu eta haiek zuzena den ala ez esan dezaten.




Tutoriala: [Nola sortu foro bat TwinSpace-n.](#)



← Back to forums

### Te veo en la Red

Cuéntale a tu compañero qué has podido descubrir sobre él en internet. Luego hablaréis para comprobar si es correcto o no.



**equipo 1**

5.irudia\_foroa


- b) Beste eztabaida-hari bat sortuko da ikasleek galdera hauei erantzun diezaieten:
- Zu Sarean "ikustea" hain erraza zela uste al zenuen?
  - Ezezagun batek zuri buruz hainbeste gauza jakitea nahi al zenuen benetan?
  - Zer egingo duzu hemendik aurrera?



← Back to forums

### Te veo en la Red

Cuéntale a tu compañero qué has podido descubrir sobre él en internet. Luego hablaréis para comprobar si es correcto o no.



**¿Imaginabas que era tan fácil "verte en la Red"?**

6. irudia\_foroko haria

- c) Erantzunak taldekideekin komentatuko dituzte. Bide batez, ikastetxean informazio/prebentzio kanpaina bat nola antolatu pentsatuko dute, Interneten partekatzen duten informazioarekin kontu handiagoz jokatzeko laguntzeko, haien arrasto digitala babesten laguntzeko.

## 7. urratsa

Nazioarteko talde bakoitzak bere haria erabiliko du foroan prebentzio-kanpainarako proposamena planifikatu eta sortzeko: poster bat egin dezakete, guztien artean flipgrid bideo bat edo audio-mezu bat grabatu dezakete... talde bakoitzak erabakiko du formatua.

## 8. urratsa

Sortutako material guztia ikastetxe kide bakoitzaren web-orri instituzionalaren bidez jakitera emango da.

## 9. urratsa

Autoebaluazioa eta koebaluazioa: ikasle bakoitzak bere autoebaluazio-fitxa osatuko du (proiektuko kide guztientzat balioko duen eredu bat sortuko da), bai eta jarduera kolaboratiboetarako sortutako koebaluazio-fitxa ere.

Autoebaluazio-fitxaren eredu:

Jarduera	Erabilitako tresna	Data	Ongi egin nuen, pozik nago	Egin nuen. Hala-hola dago	Egin nuen baina ez dago oso ongi	Oraindik ez dut bukatu	Egin gabe



\*Prozesu osoan zehar, irakasleek gainbegiratu eta aholkatuko dute, ikasleek jarduerak eskatzen duen sormen-askatasuna izan dezaten.

### TwinSpace-ko tresnak / kanpoko 2.0 tresnak:

Twinspace: TwinBoard, Materialak, Foroa, TwinMail, Poll

### Kanpoko 2.0 tresnak

- [Canva](#)
- [Sway](#)

- [Adobe spark](#)
- [mindmup](#)
- [forms](#)